

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LEGUTIOKO UDALA

#### Langabezian, ABEEEn dauden edo pandemiaren ondorioz diru sarrerak galtzen dituzten partikularrentzako laguntzen deialdia

DDBN(Identif.): 523088

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdns-trans/GE/es/convocatoria/520248>.

<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index> eta Legutioko Udalaren web orrian <http://www.legutio.eus>.

#### Xedea

Deialdi honen helburua da onestea langabezian, ABEEEn dauden edo pandemiaren ondorioz diru sarrerak galtzen dituzten partikularrentzako (autonomoak barne) laguntzen deialdia.

#### Onuradunak

Eskaera bizikidetzatza unitateko kide bakarrak egin behar du, zeinak honako betekizun hauek bete beharko baititu:

1. Pandemiaren ondorioz langabezian edo aldi baterako enplegu erregulazioko espediente baten barruan dauden edo diru sarrerak galdu dituzten pertsonak (autonomoak barne) izan daitezke onuradun.
2. Eskatzaileak Legutioko Udalerrian erroldatuta egon behar du eta udalerrian bizi benetan, 2020ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik.
3. Eskatzaileak adinez nagusia izan behar du edo legez emantzipatuta egon.
4. Alarma egoera hasi zenetik, familia unitatearen sarrera garbiak (edozein kontzeptu dela eta jasoak) ezin dira izan hauek baino handiagoak:

FAMILIA UNITATEKO KIDEA	OROKORRA – EURO/HIL, GEHIENEZ ERE
1	800,00
2	1.000,00
3 edo gehiago	1.200,00

5. Eskatzaileak egunean izan behar ditu Legutioko Udalarekiko zerga betebeharrak (ofizioz egiaztatuko da).

6. Laguntza ematearen aldeko txosten arrazoitua eduki behar da, udaleko gizarte zerbitzuek egina. Laguntza jasotzen jarraitu ahalko dela bermatzeko, premia izaten jarraitzen duela egiaztatu beharko du onuradunak, eta hori esplizituki jasota geratuko da laguntza emateko hasierako proposamenarekin batera joango den jarraipenaren txosten sozialaren bidez.

**Xedea**

Oinarri hauen xedea da dirulaguntzak ematea, langabezian dauden (partikular eta autonomo) edo egungo egoera sozioekonomikoa dela-eta pandemiaren ondorioz diru sarrerak galtzen dituzten pertsonen premia larrienak arintzeko.

**Oinarri arautzaileak**

Legutioko udalbatzak 2020ko irailaren 2ko erabaki bidez onetsitakoak. Udalaren web orrian eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko dira.

**Zenbatekoa**

231.480.010 aurrekontu partidaren kontura:

Artikulu honetan ezarritako aldi osoan emango den laguntzaren gehieneko zenbatekoa ezingo da izan taulan jasotakoa baino handiagoa, bizikidetzaren unitate onuradun bakoitzeko:

FAMILIA UNITATEKO KIDEAK	OROKORRA – EURO GEHIENEZ ERE
1	1.200,00
2	1.800,00
3 edo gehiago	2.200,00

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan gobernuak deklaraturako alarma egoeraren hasieratik urte honen amaiera arteko aldian bizikidetzaren unitateak eskatzen dituen oinarriko premiak estaltzeko emango da laguntza, baldin eta aurrekontu kreditua (57.000,00 euro) agortu ez bada, eta, beraz, aurrekontu mugara heldu arte, salbu eta legez onetsitako aurrekontu aldatetako espedientea izapidetzen bada

**Emango diren zenbatekoak**

Kide bakarreko bizikidetzaren unitatea: 120,00 euro hilean

Bi kideko bizikidetzaren unitatea: 180,00 euro hilean

Hiru kideko edo gehiagoko bizikidetzaren unitatea: 220,00 euro hilean

Eman beharreko zenbatekoa kalkulatzeko egun naturalak hartuko dira kontuan.

**Eskaerak**

4. Eskaerak aurkezteko epea oinarrien deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratu ondorengo egunean hasiko da, eta 2020ko urriaren 16an amaituko da. Epez kanpo aurkeztutako eskabideak ez dira izapidetzeko onartuko, gaiaren mamian sartu gabe, administrazio ezaizpen bidez.

Legutio, 2020ko irailaren 7a

*Alkatea*

*JON ZUAZO ZUBERO*